Tolosan azaroaren 27-an

Jaun Kalonje eta
adixkide maitea,

Lehen lehenik behar dauzut barkhamendu galdatu ene ixiltasunaz. ~~Iragan~~ Joanden buruilan iragan niz Semenario ttipian bainan ez zitut ikusi ahal izan. Banuken segur zure kontseilu suharren beharra ene etsamin hor buruz. Huna zeri buruz abiatua nizan aurthen Jainkoaren laguntzarekin batean: Frantsesa egin gogo dut eta ~~ere~~ Philologia ere. Azken hau famaz bederen gaitza da. Horregatik hasia niz pochi bat jestatzen eta jadanik ikusten dut ez dutala egun handirik ukanen alferkerian igaiteko nahi badut heldu. Iduritzen

zaut halere, ontsa plantatuz eta egunak oro baliatuz etsamin hori ene meneko dela - Cejeroak erranen du hala denez -
Enekin batean ari da lanean zure eskolier ohi bat : Etienne Ithurria : Jaz iragan ditu : Frantsesa eta Greca, aintzineko urthean latina : orai, beraz ez du Philologia baizik : Eskola egiten du aste guziez 9-10 horen bere biziaren irabazteko ikastegi batean - Elgarrekin ari gogo du lanean ~~baita~~ Philologian baita ~~al~~ denen laguntzaren beharra -
letra hunekin batean igortzen dauzut 15 ehun libera zure liburuarendako - Facultatean den Allières jaunak erran dauku ez zela deus zure lan hori balio zuenik eskuararen ikasteko -
Hortan finitzen dut : Goraintzi handi bat hemengo eskualdunen partez, partikulazki Pochelu laurent apez berria (licence de maths egiten du) Peyo Irigoyen eta Jakes Amestoy kohitzundarra -
Denak zure othoitz kartsuer gomendatzen gira urthe latz huni buruz - Ene partez goraintzi handi bat Semenario Hipiko profesur guzier eta lehen lehenik jaun Superiozari - Ene aldetik zure lana Jainkoari eskaintzen dut - J.P. Etcheverry